



BARNE-ARAUDIA

Dokumentu hau indarrean dauden elkartearen estatutueta oinarritzen da, eta, zehaztasun maila handiagoz, BioAlairen antolaketa erraztu nahi du, funtzionamendu-arau batzuk ezarriz.

1. Helburuak eta jarduerak

1.1.- Nekazaritza ekologikoaren zigilu ofiziala duten elikagaiak jarriko dira salgai. Hala ere, nekazaritza ekologikorako bidea egiten ari diren ekoizleei laguntzeko, haien produktuak saldu ahal izango dira dendan.

Kasu horretan, bazkideei behar bezala jakinaraziko zaie, identifikazio argi baten bidez.

1.2.- Produktu berri bat salgai jarri aurretik, Zuzendaritza Batzordeak edo hark eskuordetutako pertsonak edo batzordeak baloratu eta onartu beharko du.

1.3.- Bioalai ahalik eta elikagai hurbilenez hornituko da, eta, horretarako, akordioak egin ahal izango ditu Arabako edo inguruko herrialde edo probintzietako ekoizleekin.

1.4.- Bioalaik lehentasunez zuzenean erosiko die ekoizleei. Horretarako, zuzenean hornitzen gaituzten pertsonetik harremana aztertuko da urtero, hornidura-akordioak sendotu eta zabaltzeko.

1.5.- Elkartearen egoera ekonomikoak ahalbidetzen duenean, eta zuzeneko eta tokiko hornikuntza errazteko, ekoizpen hurbiletik datozen eta ekoizleari zuzenean erosten zaizkion elikagaiei gainerako produktuei baino merkataritza-marjina txikiagoa aplikatuko zaie.

1.6.- Bioalaik ziurtagiri ekologikoa daramaten bidezko merkataritzako produktuei ere lehentasuna emango die.

1.7.- Bioalai elkarlanean arituko da ekoizpen ekologikoan eta kontsumo ekologiko eta jasangarrian diharduten beste elkarte batzuekin.

1.8.- Finantza-arloan, BioAlaik lehentasuna emango die banku etikoei banku-eragiketa arruntak egin eta soberakinak gordailutuko dituzten entitateak aukeratzean.

1.9.- Bioalaik prestakuntza-jarduerak egingo ditu elkartekideentzat, gure helburuekin bat datozen gaiei buruz. Batzordeak erabakiko du zein ikastaro egingo diren, eta jarraitu beharreko protokoloa prestatuko du.

1.10.- Era berean, interesgarri izan daitekeen informazioa bidaliko zaie bazkideei, eta informazioa trukatu ahal izateko baliabideak jarriko dira haien eskura.

2. Batzar orokorra

2.1.- Batzar Nagusietara bertaratzen diren pertsonak, bilera egiten den lekura sartzean, "Batzarrera bertaratze orria" bete beharko dute eta bazkideak edo onuradunak diren adierazi.

2.2.- BioAlai osatzen duten pertsona guztiek hitz egiteko eskubidea daukate, baina bakarrik bazkideek dute botoa emateko eskubidea. Bozkatu ahal izateko, agiri ofizial baten bidez identifikatu beharko dira.

2.3.- Botoa esku hutsez emango da; batzarraren % 10ek isilpeko botoa eskatzen duenean edo ordezkariak izendatu behar direnean izan ezik.

2.4.- Zuzendaritza Batzordeko kideak Batzar Nagusiak aukeratzen ditu. Batzarra egin baino 15 egun lehenago gutxienez, Batzordeak Batzorde berrian parte hartzeko hautagaitzak eskatuko ditu. Aurkezten direnak, hautagai berriak izan edo berriro hautatuak izateko aurkezten direnak izan, Batzarrak onartu beharko ditu bozka baten bidez.

2.5.- Batzar Nagusia egin baino bi egun lehenago bukatuko da hautagaitzak aurkeztu ahal izateko epea.

2.6.- Bakarrik ezarritako epean Batzarrerako hautagaitza nahikorik ez badago, batzarraren egunean bertan aurkeztu ahal izango dira.

3. Zuzendaritza Batzordea

3.1.- Zuzendaritza Batzordeko kideren batek karguari uko egiten badio, gainerako kideek beste bazkide bat gonbidatu ahal izango dute, hurrengo batzarrera arte hura ordezkatzeko.

3.2.- Estatutuen 20. artikuluan jasotakoez gain, hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

A) Elkartearen funtzionamendu egokia erraztuko duten jarduera-protokoloak egitea.

B) Dendako produktuak erosteko irizpideak ezartzea eta erabakitzea.

C) Produktuei ezarriko zaien marjina erabakitzea.

D) Batzordearen bileretan hartutako erabakien berri bazkideei aldizka ematea, baita elkartean egiten ari diren jardueren eta ekimenena ere.

E) Urte naturaleko batzarraren lehenengo bileran, gerentziak hilero egin ditzakeen ordainketen gehienezko zenbatekoa ezartzea.

F) Gerentziaren esku uztea egoki iritzitako ordezkagarritasuna eta eginkizunak.

3.3.- Batzordean landutako gaiak konfidentzialak dira. Batzordeko kideek ez dute informazio pribilegiaturik erabiliko beren onurarako eta/edo Bioalairen interesei kalte egiteko moduan.

4. Bazkideei eta onuradunei dagokienez

4.1.- Bazkideek gehienez ere elkartearen zerbitzuak erabil ahal izango ditzuzten bi onuradun izendatu ahal izango dituzte. Horretarako, onuradunak izendatzeko prozedura erabili beharko da.

4.2.- Bazkideak onuradunak aldatu ahal izango ditu, dagokion prozeduraren arabera.

4.3.- Zuzendaritza Batzordeak bazkideen eta haien onuradunen erregistro eguneratua izango du, eta produktu edo zerbitzu baten truke ordaintzeko unean dendako langileek egiaztatuko dute pertsona hori elkarteko kide edo onuradun den.

4.4.- Onuradunek ez dituzte estatutuen 31. artikuluan bazkideari aitortzen zaizkion eskubideak (h paragrafoa izan ezik); beraz, Bioalairekin duten harremana Elkarteak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak eskuratzea baino ez da izango. Sarbide hori bazkideen baldintza berberetan izango da.

4.5.- Onuradunen eta elkartearen arteko harremana bazkide gisa agertzen den pertsonaren bidez egingo da.

4.6.- Elkartzeko unean onuradunik ez duten bazkideek geroago izendatu ahal izango dituzte.

4.7.- Bazkideak bere izaera onuradunetako batekin trukatzeko eska diezaioke Zuzendaritza Batzordeari; horrela, onuraduna bazkide titular bihurtuko da, eta titularra onuradun. Idatziz jasoko da dokumentu espezifiko batean, dagokion inprimakia beteta edo elkartearen bulegoetan bertan.

4.8.- Bazkide bati heriotzagatik baja ematen bazaio, onuradunek gehienez ere sei hilabeteko epean eskatu ahal izango dute bazkide izaera hori. Bazkidearen onuradunen artean beste bazkide zenbaki bat esleituko da, irizpide hauen arabera: 1. zuzeneko senidea izatea, 2. aintzinekotasuna, 3. adinean zaharrena. Hau da, epe barruan eskatzen bada, onuradun bat bazkide bihurtu ahal izango da, eta besteak onuradun izaten jarraitu ahal izango dute.

5. Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

5.1.- Bazkideen betebeharretakoa bat urteko kuota ordaintzea da. Bazkide batek urteko kuota ordaintzen ez badu, ezingo ditu Elkartearen zerbitzuak erabili – Ezta onuradunek ere – (erosketak egitea, antolatzen diren jardueretan parte hartzea, etab.).

5.2.- Bazkideak elkartearen funtzionamendu egokian parte hartzeko betebeharra ere badu. Horretarako, Batzarrak bazkide edo onuradun bakoitzak urtean eman beharreko bi ordu ezartzen ditu, aurkez daitezkeen hainbat lan boluntarioran parte hartuz, eta lan horietarako laguntza eskatuko zaio. Eskatutako lana betetzen ez bada, Batzordeak zehaztuko duen diru-kopurua ordaindu beharko da.

5.3.- Urteko kuota sarrera egin eta hurrengo ekitaldian hasiko da ordaintzen. Zuzendaritza Batzordeak urteko kuotaren salbuespena erabaki ahal izango du elkartearekin aldizka lankidetzan aritzen diren bazkideentzat. Indarrean

dagoen irizpidea urte naturaleko Batzarraren lehenengo bileran zehaztuko da, eta denek jakin dezaten argitaratuko da.

5.4.- Bazkideen Batzar Nagusiak beste erabaki bat hartu arte, bazkide guztiek eta onuradunek adostutako kreditu-txartelaren bidez – une honetan Arabako Merkataritza Txartela da – ordainduko dituzte erosketak.

5.5.- Kasu berezietan, Zuzendaritza Batzordeak bazkide bati eskudirutan ordaintzeko baimena eman diezaioke. Era berean, kontsumo ekologikoko beste elkarte batzuetako bazkideek eskudirutan ordaindu ahal izango dute.

5.6.- Bazkideek, beren jarrerarekin, Elkartearen espazio fisikoan egiten den erosketa-jarduera zein beste edozein jarduera eragozpenik gabe egin ahal izatea ahalbidetuko dute. Era berean, gizarte- eta jolaserako espazioa jaso egin behar da erabili ondoren.

5.7.- Gizarte-esparrua bilerak, ikastaroak eta BioAlairen filosofiarekin lotutako beste jarduera batzuk egiteko erabili ahal izango da. Gizarte-espazioa erabili nahi duten bazkideek honako arau hauek bete beharko dituzte:

A) Bazkide edo onuradun batek erreserba dezake.

B) Zuzendaritza Batzordeari egingo dio eskaera, eta hark erabakiko du jarduera onartzen den ala ez.

C) Bilera horiek bazkide eta onuradun guztientzat irekita egon behar dute. Bakarrik plazaren bat libre geratzen bada ireki ahal izango zaie bazkide ez direnei.

D) Zuzendaritza Batzordeak edo hark eskuordetutako pertsonak zehaztuko du gehienezko parte-hartzaile kopurua.

E) Erreserba egin duen pertsona arduratuko da tokia jasota uzteaz, baita bilerak eragin dezakeen edozein kalte ere.

F) Onartutako edozein jarduera denda itxi baino gutxienez ordu erdi lehenago amaitu beharko da.

G) Garatu beharreko jarduerak ez ditu eragotzi edo oztopatu behar elkartean egiten ari diren gainerako jarduerak, hala nola ohiko erosketa.

6. Barne-araudia aldatzea

6.1.- Zuzendaritza Batzordeak edo gutxienez bazkideen % 5ek proposatu ahal izango dute barne-araudi hau berikusi edo aldatzea.

Behin proposamena egin edo jaso ondoren, Zuzendaritza Batzordeak bazkideei helaraziko die, ezagutu dezaten eta, ondoren, Ohiko Batzar Orokorrean onartu ahal izateko.

Batzar Nagusiak 2019ko ekainaren 1ean onartua